

### II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

#### LEGUTIOKO UDALA

##### **Lanpostuen zerrenda aldatzea, psikologiako teknikariaren plaza amortizatzeko**

2021eko urtarrilaren 20an egindako bilkura berezian, erabaki zen udaleko lanpostuen zerrendaren aldaketa onestea, psikologo plaza amortizatzeko; eta hori argitara ematen da, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 74. artikuluan, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 18.1 artikuluan, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan eta horiekin bat datorren gainerako legedian xedatutakoaren arabera.

Erabaki horrek administrazio bidea amaitzen du, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtoa aurkeztu ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, egoki jotzen den beste zernahi errekurto ere jarri ahal izango da.

Guztiekin jakin dezaten eta ondorioak izan ditzan argitaratzen da hau.

Legutio, 2021eko urtarrilaren 21a

*Alkatea*

**JON ZUAZO ZUBERO**